

Euskadin lanean ari diren 25 eta 34 urte bitarteko gazteen lautik batek txandaka lan egiten du (% 25,2)

Euskadin lanean ari direnen artean 25 eta 34 urte bitarteko gazteak dira beren seme-alaben zaintzan denbora gehien ematen dutenak: talde horretakoek egunean 5,6 ordu ematen dituzte, batez beste.

Baina, talde horretan txandaka, asteburuetan edo gauez (hau da, egunean hiru ordu edo gehiago edo urteko lan orduen herena gutxienez 22:00 eta 6:00 artean) lan egiten dutenen ehunekoak batezbeste orokorretik gora daude. Eta hiru lan-baldintza horiek zailago egiten dute lana eta familia uztartzea.

Euskadin lanean ari diren 25 eta 34 urte bitarteko gazteen lanen ezaugarriak eta biztanleria landun osoarekiko alderaketa				
(%)	Gaueko ordutegia	Asteburuetako lana		Txandakako lana
		Beti	Batzuetan	
25 eta 34 urte bitarteko gazte landunak	16,8	16,5	27,4	25,2
Biztanleria landun osoa	13,4	13,6	25,1	21,9
<i>Iturria, Gazteen Euskal Behatokiak eginga, Eustatek 2019an egindako Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkestaren emaitzak oinarri hartuta</i>				

Datu horiek Gazteen Euskal Behatokiak aztertu ditu, Eustatek 2019an egindako [Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkestaren](#) emaitzak oinarri hartuta.